

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Migel Maiztegi Arregi

*Oñati,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea



Biografia



Arantzazu auzoko Goiko Benta ostatu-baserrian jaio zen, zazpi anai-arrebatatik gazteena. Aita bertakoa zen, eta ama auzo bereko Arrola baserrikoa. Auzoko Eskola-etxean ikasi zuen hamabi urtera arte. Gero Oñatiko "Ductor" ikastetxe pribatuan batxilergoa eta merkataritza ikasi zituen beste hiru urtez. Donostiako Peñafloidako institutuan batxilergoa bukatu eta etxera itzuli zen. Ostalaritzan eta baserrian jardun du bizi guztian. Ganadu tratulari ere jarduna da. Bere etxeko eta Arantzazuko ostalaritzaren historia eta bertako eta Urbiako ganadu zaintzari buruzko azalpenak ematen ditu. Fraideen eragina, Calahorra eta Arantzazurako galtzadak eta bentak, otsoen ipuin zaharrak, aurkikuntza arkeologikoak, Euskal Herri osoko ganadu feriak, eta beste hainbat konturen inguruan berba egiten du Migelek.

Zintak

ONA-134

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-08-16
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Oñatiko "Ductor" akademia

- **Erref:** ONA-134/002
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:00:37. **Bukatu:** 00:02:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Arantzazun bertan hasi zen eskolan. Batxilergoa Oñatiko akademia batean hasi eta Donostiako Peñaflores Institutuan bukatu zuen. Oñatiko "Ductor" akademiaren historia azaltzen du. Ikasketa orokorrak eta merkataritza irakasten zuten akademian.

2. Arantzazuko Benta omen zen jatorrian

- **Erref:** ONA-134/004
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:03:09. **Bukatu:** 00:05:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

Migelen etxearen jatorrizko izena Arantzazuko Benta zen. Fraideek jarri omen zioten "Goiko" Benta izena. Kortakogaingo Bentaren historia azaltzen du. Arrikruz baserritik pasatzen zen galtzada, Calahorra-ra zihoan. Arantzazuko fraideak han ordenatzen ziren.

3. Ostatuko ganbaretan ere erromesak

- **Erref:** ONA-134/005
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:05:42. **Bukatu:** 00:08:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

<p>Arantzazuko Ama Birjina agertu eta laster sortu zen Arantzazuko Benta. Arantzazuko ostatuen bilakaera azaltzen du Migelek. Garai batean, udazkeneko zapatu gauetan, ostatuko ganbarak ere erromesek betetzen ziren.</p>

4. Frigorifikorik ezean, zezina

- **Erref:** ONA-134/006
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:08:04. **Bukatu:** 00:10:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Ostatuaz aparte, baserria ere bazen Goiko Benta. Etxeko txahal, txerri,

ardi zahar, eta abarrean okelak prestatzen ziren ostatuko sukaldean. Urte batean, Arrosarioetarako behi bat eta hiru ardi hil omen zituzten. Eguraldia oso txartu zen eta okela guztia zezinatu egin behar izan zuten. Zezina nola egiten zuten azaltzen du.</p>

5. Morroiak baserrian

- **Erref:** ONA-134/007
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:10:26. **Bukatu:** 00:13:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gurasoak eta zazpi anai-arrebak bizi ziren etxean, eta beti izan dute morroi edo neskameren bat. Morroietako bat nafar estraperlista bat izan zuten. Oñatin oso ezaguna zen "Juan Pelotas" ere izan zuten morroi.

6. Komentuko ganadu hiltegia

- **Erref:** ONA-134/009
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:14:55. **Bukatu:** 00:18:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Esne behiak zituzten, fraideen komenturako esnea ekoizteko. Fraide eta ikasleen artean, 300 bat lagun egoten omen ziren komentuan. Goiko Bentako txahalak ere komentura joaten ziren. Komentuan euren hiltegia zuten. Nafarroara eskean joanda, fraideek urtero 40-50 ardi ekartzen zituzten Arantzazura.</p>

7. Ardiak larreratzeko basoak

- **Erref:** ONA-134/010
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:18:11. **Bukatu:** 00:20:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Fraideek Gomiztegi baserria erosi zutenean, bertarako errepidea egin zuten, dinamitaz eta pikatxoiz. Etxean artaldea beti ezagutu du Migelek. Ikatza egiten zen garaian basoak garbiak zeuden, eta ganadua bertan larreratu ahal izaten zen. Malla-Urbia, Aloña edota Artaso-

Gaboñoko baso eta larreetara bidaltzen zituzten ardiak Arantzazuko baserritarrek.</p>

8. Moxalekin oinez Iruñeraino

- **Erref:** ONA-134/011
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:20:39. **Bukatu:** 00:23:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Gaztetan hasi zen Migel ganadu-tratulari jardunean. Hiltegieta edota Arrasate, Gasteiz, Iruñea, Tafalla, Zumarraga eta Miranda de Ebroko ferietara eramaten zuen ganadua. Azken urteetan kamioietan, baina aurretik ganadua oinez eramaten zuen, bidean beste ganadu tratulari batzuekin elkartuz. Zenbaitetan ehunka moxal batera eramaten zituzten.</p>

9. Ardi zaharrak Ordiziara oinez

- **Erref:** ONA-134/012
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:23:30. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Ferietarako oinezko bidaietan, ganadua bidean larreratzen zuten, eta ferian bertan ganadu-bazka saltzaileak izaten ziren. Ardi zaharrak asteazkenero oinez eramaten zituzten Ordiziako azokara.</p>

10. Otsoak Arantzazun eta Araotzen

- **Erref:** ONA-134/014
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:24:42. **Bukatu:** 00:28:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Otsoak harrapatzeko zepoak badituzte etxean. XX. mende hasieran, Migelen amandrearen anaia bat otso-ehizan Arabaraino joan omen zen, Arantzazun tiroz zauritutako otso baten atzetik. Otsoak hildako fraide baten istorioa kontatzen du. Araotzeko Neskien Begia lekuan ere, otsoak neskaren bat hil omen zuen.

11. Hartz eta gizaki hezurdura zaharrak

- **Erref:** ONA-134/016
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:29:07. **Bukatu:** 00:33:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

Migelek ez daki otsoen kontu guztiak egiak izango diren. Arantzazuko kobazulo batean Migelek "Oso Cabernícola" hartz baten hezurdura osoa aurkitu zuen. Beste kobazulo batean, Gastiazoroko koban, lau gizaki ehiztari familien hezurdurak aurkitu zituen.

12. Mikeleteak eta Guardia Zibilak

- **Erref:** ONA-134/018
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:33:30. **Bukatu:** 00:36:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Lanbideak » Udal langileak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Mandatuak egitera kalera joaten ziren. Arabatik ere gauza asko ekartzen zituzten. Migelen sasoian Guardia Zibilek zaintzen zituzten mugak. Mikeleteek oso etxe ederra izan omen zuten. San Juan Artia baserrian jendea bizi izaten ezagutu zuen Migelek.

13. San Juan Artia baserria

- **Erref:** ONA-134/019
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:36:33. **Bukatu:** 00:38:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Garai batean Arabatik ekartzen zuten Arantzazuko ostatuatarako okela. San Juan Artia baserriak benta bezala ere jarduten zuen. Hango umeak Arantzazun eskolatzen ziren eta lo egiten ere bertan geratzen ziren.

14. Urbiatik Arantzazuko eskolara

- **Erref:** ONA-134/020
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:38:20. **Bukatu:** 00:39:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Urbiako artzainen umeak ere Arantzazuko eskolara etortzen ziren. Artzain asko egoten ziren Urbian, herri askotatik etorritakoak.

15. Basilika berria eraikitzen

- **Erref:** ONA-134/022
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:39:49. **Bukatu:** 00:41:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

<p>Erromatik agindua etorrita, Basilika berriaren lanak 14 urtez geldi egon ziren. Eliza zaharra erditik gora bota zuten, zabalagoa eta altuagoa egiteko. Ehun bat galiziar langile egon ziren lanean Arantzazun.</p>

16. Oteiza Arantzazun bizitzen

- **Erref:** ONA-134/023
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:41:49. **Bukatu:** 00:43:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Oteiza eskultorea urte pare batez egon omen zen Arantzazun lanean, Goiko Bentan ostatu hartuta. Jenio bat omen zen Oteiza. Bere emazte Itziarrekin bizi izan zen Arantzazun.

17. Basilikako artista ospetsuak

- **Erref:** ONA-134/024
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:43:40. **Bukatu:** 00:46:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Luzio Muñoz, basilikako erretaularen egilea; Moreno, Oteizaren laguntzailea, gero Oñatin bizitzen geratu zena; Txillida, basilikako ateak egiten jardun zen bitartean; edota Basterretxea bera ere egon ziren Goiko Bentan ostatu hartuta.

18. Gomiztegi baserria

- **Erref:** ONA-134/026
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:46:39. **Bukatu:** 00:49:32

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Fraideek Gomiztegi baserria erosi zuten. Gomiztegin aurretik bizi izan ziren pertsonak aipatzen ditu Migelek.

19. Askotariko abereen granja Gomiztegin

- **Erref:** ONA-134/027
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:49:32. **Bukatu:** 00:53:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Hasieran, fraideek esne-behiak jarri zituzten Gomiztegin. Behiak gaixotu egiten ziren eta ardiak zaintzeari ekin zioten. Geroago artzain eskola jarri zuten bertan. Oilo-zaintzan eta txerriak hazten ere jardun zuten Gomiztegin garai batean.</p>

20. Bokazioa jaisten

- **Erref:** ONA-134/028
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:53:09. **Bukatu:** 00:54:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Fraideek ikastetxe berria eraikitzeaz bat, fraidetzarako bokazioa jaisten hasi zen.

21. Erromerietara oinez

- **Erref:** ONA-134/030
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:55:12. **Bukatu:** 00:56:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Kotxea eduki zuen arte ezin izan zuen erromeria askotara joan. Herriko jaietan bakarrik joaten ziren autobusez kalera. Arabako San Bernardoetara oinez joaten ziren.

22. Urtiagain eta Txopekua

- **Erref:** ONA-134/031
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:56:40. **Bukatu:** 00:58:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Urtiagain taberna eta Txopekua sagardotegia nola sortu ziren azaltzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com